



ANDOAINGO UDALA



Kalenagusiko hoditeria aldatzeko lanak hirugarren eta azken fasean sartuko dira datorren astelehenean

Datorren astelehenean, maiatzaren 7an, hirugarren eta azken fasean sartuko dira hoditeria aldatzeko lanak. Hain zuzen, Joakin Larreta etorbidea eta udaletxe aurrerainoko tartean gauzatuko da fase hau. Aurreikuspenen arabera, hilabete honen amaieran amaituko dira lanak.

Goikoplazako tramo hau astelehenean 9:15etatik aurrera egongo da itxita. Kontuan izanik Goikoplazako tramo garrantzitsu bat itxita egongo dela, zehazki La Salle etorbidea eta Kalenagusia lotzen dituen, kotxeen igarotzea ahalbidetu ahal izateko Aierbeko pausua irekita mantenduko da asteko egun guztietan.

Era berean, orain arte itxita dagoen tramo (Juan Bautista Erro kalean hasi eta Kalenagusiraino) maiatzaren 4an, ostiraletik aurrera irekita egongo da. Behin-behinean egongo da irekita, izan ere, lan guzti-guztiak amaitzen direnean behin-betiko asfaltatua egin behar da. Baina ordura arte irekita egongo da.

Duela lau hilabete hasi ziren hoditeria aldatzeko lanak. Aste asko dira lanen eragozpenak jasaten, baina herritar guztion onbeharrez dela ikusirik, azken esfortzu bat eskatzen diegu herritarrei. Nola ez, beste behin ere, herritarren pazientzia eta sosegua eskertu nahi dugu.

Andoainen, 2018ko maiatzaren 2an

